

## V. KAPITULUA

### Eskola inklusiboari laguntzeko sarea

#### 18. artikulua. Hezkuntzarako laguntza-zerbitzuak

1.- EHLren 88.3 artikulua arabera, hezkuntzarako laguntza-zerbitzuen jarduera-esparrua ikastetxe guztietara hedatzen da, eta, eskura dituzten baliabideen arabera, lehentasuna ematen zaie funts publikoekin finantzatutako ikastetxeei.

2.- Zerbitzu horiek aholkularitza emango dute, bai eta beharrezko laguntza tekniko eta prestakuntzako ere, aniztasunarekiko erantzuna eta laguntza-premiak dekretu honetan ezarritako printzipioekin koherenteak izan daitezten.

3.- Zerbitzu horiek **funtzio** hauek beteko dituzte, besteak beste:

- a) Eskola inklusiboaren garapena sustatzea, ikasle guztiek parte hartzeko eta ikasteko prozesu gisa, eta ikastetxeen hezkuntza-proiektuak metodologia eta jardunbide inklusiboen bidez eralda daitezten bultzatzea.
- b) Ikasteko eta parte hartzeko oztopoak identifikatzeko eta desagerrarazteko prozesuetan ikastetxeei aholku ematea, ikasle guztien garapen integrala berma dezaten, haien garapen kompetentzial, emozional eta sozial osoa kontuan hartuta.
- c) Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza-mailetakako irakasleen prestakuntzan ikastetxeei aholku ematea eta haiekin lankidetzan jardutea, proiektu inklusiboak garatzeko.
- d) Irakasleei eta, irakasle izan gabe, inklusioan laguntzen duten profesionalei beren zereginak betetzeko prestakuntza eta aholkularitza ematea, beren funtzioak betetzen dituzten ikastetxeetako irakasle-taldearekin lankidetzan.
- e) Era berean, inklusioa sustatuko duten jardunbide egokiak eta azterketa- eta analisi-ildoak bultzatuko dituzte.

4.- Plan estrategikoek, eta plan horiek laguntza-zerbitzuen urteko planetan zehazteak, eskola inklusiboa garatzeko behar diren neurriak eta ekintzak izango dituzte ardatz egituratzailatzat.